



ESKUALDEKOAK NOR BAINO NOR

Zortzi gazte elkarren aurka lehiatuko dira etzi, Aian izango den giza-proban ›2

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Osteguna
2009-10-29

VILURTEA 1.813.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Letoniako Swedban Chamber Choir izan zen aurtengo lehiaketa zabaldu zuena. I. TERRADILLOS

AURREIKUSITAKOA BAINO LABURRAGO EGIN DIO ABESBATZA LEHIAKETAK

TOLOSA Atzo hasi zen 41. Abesbatza Lehiaketa; Italiako Coro Musicanovak ezin izan zuen atzo abestu, beraz, gaurko saioan ariko da Eslovenia, Frantzia eta Norvegiakoekin batera 6

AHTren aurkako mendi martxa egingo dute Ikaztegietatik Alegiara

AHT Ugane auzotik Alegiara sortuko lituzkeen «kalteak» salatzea izango du helburu 4

JOSU IZTUETA
BIDAIARIA

«Bidaia honekin Yukongo historia ezagutzera eman nahi dugu»

TOLOSA Bideo proiektzioa izango da gaur ikusgai 7



Alondegiko lanak, atzo. E.EZEIZA

Ekainerako prest egotea espero dute adinekoen zentro berria

TOLOSA Aurreikusitako epeak ari dira betetzen 3



...eta soilik 4 hilabeteetan eraikita.

www.ekoetxe.com
Tel.: 94 627 02 99
www.ekoetxe.com



Eskualdeko zortzi gazte lehiatuko dira Aian urriaren 31n egingo duten giza-proban.

Nor baino nor probalekuan

AINHOA ALTUNA

Jon Goikoetxea ibartarra eta Gari Etxeberria amasarra, beste hainbaten artean, elkarren aurka arituko dira giza-proban. Aiako probalekuan izango da apustua, urriaren azkenean, etzi, 22:00tan hasita.

Goikoetxea, Ibarra-Zestoa-Oiartzun-Andoain taldean lehiatuko da, Etxeberriarrez, Aiztondo-Oarsorekin arituko da. 1000 kiloko harriarekin 8 kideko bi taldeek, 20 minutu izango dituzte probalekuan euren ahaleginekin ahalik eta plaza gehien egiteko. Lehian garaile suertatzen den taldeak 4000 euro irabaziko ditu.

Federazioak kontrolaturiko apustua izango da. Talde bakoitzak 700 kiloren barruan egon beharko du. Ezarritako pisua gainditzen duten kilogramo bakoitzeko, beste bat gehiago eraman beharko dute harriaren gainean.

Jon Goikoetxea eta Etxeberria Etxeberriarentzat ez da lehen aldia horrelako apustu bati aurre egiten diotela. Aizkoran ez bada segan, segan ez bada harriaren kontra, herri kirol zaleak dira *Boli* eta Etxeberria. Goikoetxearen kasuan, bost urte daramatza giza-proban. Ibarrako festa batzuetan hasi zen lehian apustu baten gora-beheran. «Horrela ibiltzen gara plazaz plaza, lan xebearekin egiten», adierazi digu kirolariak. Horren ondoren, Gazteluko festa batzuetan aritu ziren biak batera. Gerora, Ibarran beste apustu bat ere egina da. Urtean behin egiten omen ditu horrelako saialdiak. «Parrandan egindako apustu horietatik sortuak izaten dira».

Etxeberriaren kasuan, 27 urteko gazteak ere bost urte daramatza proba lanetan. Villabonako festetan egin zuen ber lehen agerraldia. Urte hauetan zehar bi taldeak aldatuz joan dira gaur egun diren iritsi arte. Goikoetxearen ka-

Lehendik jarria dagoen errekorra hautsiko dutela diote kirolariak; «ikaragarria litzateke»

suan, Tolosako Harri Festa baterako osatutako taldea mantentzen du, bi lagun aldatu diren arren. Ibarra-Zestoa-Oiartzun-Andoain taldean lau eskualdeko kide daude. Jon, Xabier anaia, Andoni eta Jexux Lopez. Gainontzeko taldeki-deak, bi oiartzuar, zestuar bat eta andoaindar bat dira. Aiztondo-Oarson berriz, Etxeberriarrez gain, Jokin eta bi zizurkildar, Mikel ur Ugartemendia eta Peio Argiaia ari-

tzen dira. Eskualdekoez gain, Errezilgo batek eta hiru oiartzuarrek osatzen dute taldea.

«Astakeria bat»

Euskal jatorriko kirol ugari dira indarra oinarri dutenak. Probalariekin ustez, guztietan gogorrena omen da giza-proba. «Kirol guztiak dira gogorrak behin maila altu batean bazabiltza, baina giza-proba oso sufrutua da», dio Etxeberriak. Giza-proba «astakeria bat» bezala definitzen dute biek; «inoiz kirolik egin ez duen batentzat osogogorra da». Prestaketa serioa eta iraunkorra eramatea beharrezkoa dira. Erresistentzia landua izatea komenigarria da eta gorputzeko atal guztiak ongi landu behar izaten dira. izan ditzaketen lesio larriak ekidin ahal izateko.

Entrenamenduei dagokionean, Etxeberriaren taldea Usurbilen entrenatzen da astean bitan. Goikoetxearen taldeak berriz, Zizurkil

«Gizakiak muga non duen ez dugu jakiten muturreko egoera batean jartzen ez garen arte»

egiten ditu prestaketa lanak. Bestalde, Goikoetxeak dio, beti egin izan dutela kirola eta entrenamenduez gain, beren kasuare sasoian mantentzea beharrezkoa dutelako.

Orain arteko markarik onena 900 kiloko harri batekin 44 plaza-tan dago. Orio eta Aiaren artean izandako lehian batean Aia izan zen garaile. «Errekorra gainditzea ikaragarria izango litzateke», Goikoetxearen esanetan. Ikuskizun polita aurreikusten dute, gogorra izango da baina jendea gustatuko zaiolakoan daude bi kirolariak. «Gizakiak muga non duen ez dakigu, muturreko egoera batean jartzen den arte. Auskalo zer gertatuko den».

Giza-proba, gizon-proba, indar proba bat izanik gizonekin lotu izan du askok, baina Etxeberriak eta Goikoetxeak emakumeek jokatu dezaketen kirola dela adierazi digute «Zizurkil aurreko festetan saio bat egin zuten emakumeek eta garbi geratu zen ez dela gizon-proba, giza proba baizik».

Aiako apustua azkeneko lana izango dutela ziurtatzen dute biek, «ez da inoiz jakiten baina apustu dezente egin izan ditugu eta urriaren 31koarekin nahikoa izango da». «Oenak irabaz dezala baina oraingoan amaituko dira gure lanak», gaineratu dute.



Bi taldeetako kideak, goian Aiztondo-Oarso eta behean Ibarra-Zestoa-Oiartzun-Andoain taldea. HITZA

» TALDEKIDEAK

■ **Aiztondo-Oarso.** Garikoitz Etxeberria, Jokin Etxeberria, Mikel Ugartemendia, Xabier Irazoki, Iñaki Lizaso, Mikel Urkizu, Josu Oiartzabal, Pello Argia, Gabi Sarasola (ordezkoa), Andoni Rezabal (hitzia).

■ **Ibarra-Zestoa-Oiartzun-Andoain.** Jon Goikoetxea, Joxe Luis Garaia, Joseba Garaia, Andoni Goikoetxea, Iker Mujika, Xabier Goikoetxea, Jesus Lopez, Garikoitz Lopetegui, Imanol (ordezkoa), Ramon Otegi (hitzia) eta Xanti Perez (prestatzailea).

«Parekatua izango da lehia»

JON GOIKOETXEA ETA GARIKOITZ ETXEBERRIA Probalariek

Kirola » Aspalditik lagun onak izan arren, oraingoan elkarren aurka lehiatuko dira bi probalariek.



A. ALTUNA

A. ALTUNA

Beroaldian egindako apustua izanagatik, seriotasun handiz hartu dute urriaren 31koa. Kilogramo guztiak zaintzeaz gain, kirolariak beraiek ere kontrol zorrotza pasatu beharko dute egindako lanak balioa izan dezan.

Nola sortu zen apustua?

Garikoitz Etxeberria. Usurbileko talde batengana jo genuen erronka botaz. Beraiek ezetza eman ziguten baina bi egun lehenago Tolosaldeko talde batek erronka bota ziela adierazi ziguten.

Jon Goikoetxea. Bi taldeak gogoginenez elkarri bota genion apustua eta hori ari gara prestaketa lanetan.

Zergaitik izango da Aiako probalekuan? Ba al du ezer berezirik bertan izateko?

G.E. Probaleku estalia delako aukeratu genuen. Horrelako probalekuan lurra erregularra izan ohi da. Bestetik, Aia apustu leku ezaguna da. Jende asko erakartzen du. Idiak ez badira zalduak, pertsonak... beti dago ikuskizunen bat.

J.G. Gipuzkoan toki ezaguna da askorentzat. Erreferente garrantzitsua da probazaleentzat.

Ohikoa al da apustua gauzez izatea?

J.G. Hasiera batean gure nahia arratsaldeaz jokatzeko zen. Bertakokordea, gauzez egiteko ohitura zutela esan ziguten.

G.E. Ikuskizunak arratsaldeaz egiten dituzte baina apustua den kasuetan, beti, gaueko 22tan izaten dira Aian. Ohitura kontua da azken batean.

4000 euro izango dituzue jokoa, baina inguruan ba al dabil beste apusturik?

J.G. Eguna gerturatzen den heinean gehitzen joango dira, izango dira tartean. Oraindik ez dut en-

tzun inor baina izango dira. Ahal duten gutxien joka dezatela, galduz gero ardurak esaktzera etor ez daitezke.

Lagun izan arren urriaren 31ean arerio izango zaretenez, zer esanango zenikete elkarri?

J.G. Gaurtik apustua bukatu arte hortzak erakutsi!

G.E. Irabazi behar baduzue, ikaragarri jo beharko duzue!

J.G. Nire ustez parekatua izango da lehia. Lehen jarria dagoen errekorra maila altuko da. Hori gainditzea ikaragarria izango litzateke, baina irabazi behar duenak hortxe nonbait ibili beharko du. Lehia gogorra izango da baina honetatik lagun atera nahiko genuke.

Politika » 2010erako Ordenantza Fiskalak aldatu dituzte; hala, adostu dute «prezioen igoera naturala» zerga guztietan aplikatzea.

ERREDAKZIOA

Udalbatzaren Ohiko Osoko Bilkura izan zen herenegun, eta zazpi puntuko osatu zuten gai zerrenda. Hasteko ohikoa den bezala, aurreko Osoko Bilkurako aktak onartu zituzten eta alkatetza dekretuen berri eman.

Hasierako onarpena eman zitzaion astearteko bilkuran, Tolosako Udalean Administrazio elektronikoa arautzen duen ordenantzari. Ordenantza horretan, herritarren datuak nola tratatu, kudeatu... arautzen da. Hala, ordenantza arautzen duen gauzetako bat da, nola identifikatu herritarra, Udalaren aurrean.

Udalbatzak kide guztiak ados agertu ziren ere, *Konekta zaitzez@banda zabala* proiektuaren barruan, banda zabaletako azpiegiturak EAEn toki mailan hedatzeko diru laguntzarako eskaera. Honekin, Ugaren auzoan, Internet zerbitzua izatea ahalbidetu nahi dute. Hauek satelite bidez konektatu ahal izango baitira laster.

Tolosako Udaleko Hitzarmen Urbanistikoaren erregistroa eratze-ko araudiari hasierako onerpena

Azken Osoko Bilkuran, zerga guztiak %0,5 igotzea erabaki du Udalbatzak

ematea izan zen, Osoko Bilkuran hartutako beste erabaki bat.

Zergak %0,5 igoko dira

2010erako Ordenantza Fiskaletan aldaketak egitea izan zen Bilkurako bosgarren puntua. Atal honetan zenbait desadostasun agertu ziren. Izan ere, Ogasun sailak proposatu zuen zerga guztietan urteko igoera naturala aplikatzea, hau da, %0,5a. Hau zaborraren tasan ere gehituko litzateke. Aipatu beharra dago, iaz Udalak zaborraren zerga, lau urtetan, %20 igotzeko konpromisoa hartu zuela, hau da, urte bakoitzean %5. Baina, «krisi garaian gaudela ikusita», aurten %0,5eko igoera aplikatzea proposatu dute ogasun sailekoek, eta ez %5.

Proposamen honen aurrean, Ezker Batuko zinegotzia izan zen bere desadostasuna agertzen lehena. Bere ustetan, egokiena, zerga guztiak izoztea baita. Alderdi Popularreko zinegotziak berriz, beste zerbitzua izatea ahalbidetu nahi dute. Hauek satelite bidez konektatu ahal izango baitira laster.

zuen. Txartelaren prezioa berriz, 1,80 euro igotzea eskatu zuen, eta aldi berean, gai honen inguruko hausnarketa bat egiteko. Izan ere, bere ustetan, «herritar bakoitzari ez dio gehiegi suposatzen igoera honek, baina Udalari bai».

Proposamenari erantzunaz, PSOE eta EAKoek azaldu zuten, urte zaila dela hau, obren ondorioz, hori dela eta, aparkamentuei dagokionean, «ematen ez den zerbitzu batengatik diru gehiago eskatzea ez dela bidezkoa» agertu zuten. Bestalde, Onintza Lasak zaborraren gaiaren inguruko monografiko bat egitea proposatu zuen.

Azkenik, Alderdi Popularreko enmendakina ez onartzea erabaki zuten. Ogasun sailak egindako proposamenari berriz, baiezkota eman zioten EAJ, PSOE eta EAKoek, eta onartua izan zen.

Berazubi haur eskolaren etorkizuna

Bilkurako azken puntua, Hiri Ordenazioko Plan Orokorren aldatzea puntual bati hasierako onerpena ematea izan zen. Aldaketa hau, 14,3 Berazubi ikastetxearen ingurukoa zen. Plan Orokorrean

bildutakoaren arabera, egun irakasleen etxe deitutakoan, 20 etxebizitza babestu egitea aurreikuszen zen. Baina, hirigintzako sailak aurrezkitutako proiektu berriekin, «beste zenbait interes publikoko proiektuak gauzatu nahi dira». Hala, 20 etxebizitza izatek 40ra pasako litzateke, eta ekipamentuetarako metroak gehitu egingo lirateke.

Jokin Azkue hirigintzako zinegotziak azaldu zuenez, Berazubiko haur eskolak ez ditu gutxieneko baldintzak betetzen, eta hau Abastosea eramatea erabaki da. Berazubiko proiektua, Abastoseko finantzatzeko ere erabiliko da. Aldaketen ostean, aurreikuspenen arabera, oraingo haur eskolaren orde, 40 etxebizitza, 200 autorentzako lurrarazpiko aparkalekua eta auzokideentzako lokala eraikiko lirateke Berazubin. Bestalde, Abastoseko beheko solairua haur eskola izango litzateke. Lehendabiziko solairuan berriz, haur eskolarentzako gune bat gordeko litzateke, egunen batean, handitu beharra izango balitz ere, hau erabili ahal izateko. Bestetik, solairu horretan bertan, gazteentzako gune

bat egongo litzateke. Hala, Kultur Etxean, egun dagoen tokia eta zerbitzua Abastosea eramanez. Beheko solairuan, parke estali bategitearen hipotesia ere agertu zuen Jokin Bildarratz alkateak herenegun egindako bilkuran.

Azalpen hauek guztiak eman ostean, bozkatzeko garaia iritsi zen, eta Eusko Alkartasuneko zinegotziek abstenitzea erabaki zuten, Onintza Lasaren hitzetan «haur eskolaren beharra hordagotzea badakigu, baina bizi dugun krisi garai honetan, ez dut uste zuhurraren denik, etxebizitzetara bideratzea proiektua, eta gauzak saltzen hastea». Honekin batera adierazi zuen ere, beraiek ez dutela oztipo izan nahi proiektu honetan, eta egindako esfortzua onartu zuen.

Oskar Renedok bere eta alderdiaren babesa agertu zuen proiektuaren aurrean, baina adierazi zuen, Abastosen gazteentzako gunea izatearen alde agertzen dela oraindik ere. Azkenik, bozkatzeko garaian, Ezker Batua izan zen aldatuta puntuala egitearen aurka agertu zen bakarra. EA abstenitu egin zen, eta gainontzekoek alde bozkatu zuten.



Adinekoen zentroa prest, ekainerako

HIRIGINTZA » Alondegia Tolosako egoitza berriaren eraikuntza lanak aurrera doaz, eta bertako ardura-dunen hitzetan, aurreikusitako programatutako epeak betetzen ari dira. Hala, datorren urteko ekainerako dena prest egotea espero dute. Pixkanaka itxura hartzen ari da adinekoentzako sorospen zentro berria izango dena. Zerbitzu guztien hoderia jarrita dauka jada, hau da, argia, ura, berogailua eta aire egokitua. Horrez gain, egoitzako logela guztietako hormak eginda daude eta baita eraikinaren bost solairuetako behegainak eta aurreko nahiz atzeko fatxadak. E.E.

Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

JOSEMARI GERRIKO ERAUSKIN

(Hilario)

Atzo hil zen, 60 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

~Goian bego~

Anima zuzendaria: Txelis Agirretxe; gurasoak: Bittoriano (†) eta Trinidad (†); anai-arrebak: Juan eta Murtxe Iriarte (†) eta Maite Otegi, M^a Jesus eta Fermin Aristondo, Miguel eta M^a Jose Urretabizkaia, Arantxa (lekairmea), M^a Nieves eta Tomas Berasategi, Benito eta Edurne Apatategi, Mari Tere eta Bixente Urteaga, Rafael eta Isabel Fariñas, Ramon eta Feli Murgiondo; izebak, ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etorri zaitezela GAUR OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI JASOKUNDEAREN parroki elizan, gorpua aurrean dela elizateko den hileta-elizkizunera. Eskerrik asko guztioi aldeaz aurretik.

Helbidea: Unzurrunzaga 11, 1A
Oharra: Gorpua Beasaingo Goierri Beilatokian egongo da.



SEGURA
2009ko urriaren 29a



Ikaztegiatiko herrigunetik begiratuta, gutxi gorabehera gezieki adierazten duten lekuak izango lirateke 363 metroko biaduktoaren hasiera eta amaiera. E. MAIZ

AHTren aurkako mendi martxa antolatu dute Ikaztegietatik Alegiara

Azpiegiturak » Ugane auzotik Alegiara bitartean azpiegiturak sortuko lituzkeen «kalte larriak» salatzea du helburu.

ERREDAKZIOA

Abiadura Handiko Trenaren egitasmoak Ikaztegieta ondoan dagoen Tolosako Ugane auzoan, Aldaba eta Alegian kalteturiko lekuek mendi martxa deitu du AHT Gelditu! Elkarlanak igande honek, azaroak 1. Hain zuzen ere, Aldabatik Languarrera hedatzen diren nekazaritza eta baso lurretan Euskal Yaren eraikuntzak eragingo lituzkeen «kalte larriak salatzea» da martxaren helburua.

Espainiako Gobernuak ingurune horretan nezakazal-baso lurreko 200.000 metro karratutik gora okupatu asmoz nahitaezko desjabetze-tramiteak abian jarri dituela azaldu dute Elkarlanetik. Ikaztegieta, Aldaba, Alegian eta Aldaba Txikin, AHTren proiektuko Tolosa izeneko zatiaeren obrak eta

hondakindegia egiteko asmoa dute.

Horren aurrean, joan den hilaren 21ean 500 alegazio aurkeztu zituen Elkarlanak desjabetze horiek bertan behera uztea eskatzeko. «Proiektu txikitzaile honen aurkako iritzia hedatzen segitzeko» mendi martxa egingo dute igande. 10:30ean Ikaztegiatiko Renfe geltokitik abiatuko dira, Aldaba eta Languarreko baserrialde eta basoetan barna 3 orduko martxa iri ekiteko. Bidean geldiune informatiboak burutuko dituzte. 13:30ean Languarren salda beroa eta sagardoa dastatzeko atsedena dute. 15:30ean Alegiako plazan amaituko da. Bertan AHTren aurkako erakusketa informatiboa ikusgai egongo da egun osoan.

Eragingo lituzkeen «kalteak»

Azpiegitura erraldoi hori gauzatzekotan Tolosaldean «itzelezko ingurumen kalteak» eragingo direla diote Elkarlanekoek. Kaleta horien artean aipatzen dute To-

sako Ugane auzoan eraiki asmo duten 40 metro altuerako eta 363 metro luzerako biadukto eskerga bat eta «herriaren parean mendimagaia alderik alde urratuta egin beharko dituzten indusketak eta azpiegitura berrestaltzeko lan handiak».

Alegian, berriz, AHTk Languarre aldeko basoetan «kalte nabarmenak» eta «Txopitxu nahiz Lizarraundi erreken suntsiketa» ekarriko duela azaltzen du Elkarlanak. Bestalde, nabarmen izango dituzte Eguzkitzako (Alegia) eta Aldaba Txikiko (Tolosa) baserri lurretan tunelaren hondaketak ateratako soberakinak metatzeko hondakindegia ezartzearen ondorioz «eragingo den hondamena», baita Muñozabalen (Aldaba) obrarako sarbide pista «eragingo dako txikizko» ere.

Bestalde, obraren tamaina itzela dela eta, Altzoko harrobiaren usiatia eritmoan hazkunde handia gertatzea eta Tolosaldean harrobi berriak zabaltzea aurreikusi daitekeela azaltzen du AHTren aurkako mugimenduak. «Bistan da horrek guztiak eragin itzela duela paisaia, zuhaitz mozketak eta leherketen osteko hondaketak direla medio, uren kutsadura eta erreken desbideratzea, higidura eta lur emankorren galerak, kamioien igarotzea, energia parastatzea, kutsadura akustiko eta atmosferikoa,», gaineratzen dute.

«Gastu izugarria»

«AHTk ingurumenari eraso bortitza eragiteaz gain, obra honek berekin diru publiko gastu izugarria dakarrela salatzen dute AHTren aurkakoek. Tolosaldeko 3,8 kilo-

metro luzerako lehenengo zati horren eraikuntza 85 milioi eurotan ateratu du enkantera Eusko Jaurlaritzak, hots, kilometro bakoitzeko kasik aurreko 4.000 milioi pezetan.

Abiadura handiko garraiok, ordea, herritar gehienak «bartzertuta uzten dituela» nabarmen izango dute. «Euskal Herriko barnealdeko eskualdeek eta Tolosaldeak, kasu, azpiegitura horren itzelezko ingurumen inpaktuak jasateaz gain, AHTk hiriburuetarantz areagotuko dituen lurralde erdiraketaren eta desoreka sozio-ekonomikoen ondorioak ere jasan beharko dituzte epe ertain eta luzean», azaltzen dute eta AHTk gune metropolitano nagusien arteko lotura azkarra baino ez duela landuko gaineratuz.

Administrazioen «nagusikeria jarrera» salatzen dute, «herri kalteuek proiektu honen aurka duten jarrerari entzungor egingez inposatu nahi dutelako». Horren harira, AHTren inguruan Alegian 2007ko apirilaren lehen egindako herri galdeketa erantzun gogorazten dituzte Elkarlanekoek.

Aurretik aipatutako arrazoi guztiengatik AHT geldiaraztea eskatzen dute Elkarlanekoek eta horrelako «proiektu txikitzaileak sustatuz» gobernuak eta botere ekonomikoak «garapena edozein gainetik ezartzen duen eta ezarri nahi diguten gizarte eta ekonomia ereduaren» inguruan jendarteak eztabaidatzeko eta «eraldaketa sakon bati ekiteko» aukera izan dezan galdetzen dute.

Elkarlanak mendi martxan parte hartzeko deia luzatu du, informazioa jaso eta «azpiegitura txikitzaile» horren inguruan oposizioa adierazteko.

Idoia Sanchez ipuin kontalariak emango dio hasiera Udazken Kulturalari

ERREDAKZIOA

Ikaztegiatiko Udazken Kulturalari hasiera emango diote gaur. Gal-tzaundiren eskutik Idoia Sanchez ipuin kontalariak emanaldia egingo du kiroldegiko liburutegian 17:00etan.

Udazken Kulturalaren baitan ekitaldi gehiago izango dira abenduaren amaiera bitartean. Tarte-an, Ibiurrera ibilaldia, herri krosa, bertso afaria eta Euskararen Eguna izango dira.

'Garai bateko Alegia' jaiko argazki proiektzioa Kultur Etxean

ERREDAKZIOA

Egunotan *Garai Bateko Alegia* jaia- ren argazki proiektzioa ematen ari dira Alegiako Kultur Etxean. Gaur eta bihar 18:00etatik 19:30era izango da ikusgai proiektzioa. Etzi, larunbatean, 11:00etatik 12:30era izango da.

Eduardo Arraia eta Iñigo Balerdi aritu dira hainbat herritarrek egindako argazkiak biltzen. Bilketan egin ondoren proiektzioa osatu dute argazkiekin.

Aurrera-Saiaz taldekoek 9 partida irabazi dituzte asteburuan

ERREDAKZIOA

Aurrera-Saiaz taldekoek 17 partida jokatu zituzten asteburu honetan, horietako bat, nagusien ohorezko mailan, elkarteko bi taldeen artean. Horretan Aurrera Saiaz 3k 12-22 irabazi zion Aurrera Saiaz 2ri. Beste 16 partidetatik Aurrera-Saiazko pilotariak 9 partida irabazi zituzten.

Ondoko mailetan lortu zituzten garaipenak: lehen mailako kadeteek (22-15), lehen mailako jubenilek (22-11), bi garren mailako jubenilen bi taldeek (bietan 22-15), ohorezkoetan banaka Aurrera Saiaz 2k (22-14), nagusien hirugarren mailako bi taldeek (22-14 eta 22-12), nagusien bigarren mailakoak (22-15) eta nagusien ohorezko mailako 1 taldeak ere irabazi zuten (22-11).



HITZAK harkidunentzat sarrera pareia du

hitzak hitza



sarrerak

Gaur, 19:30ean • urriak 29ko
Abesbatzen emanaldirako
sarreraren sariduna

• Mila Otamendi (Tolosa)

sarrerak leihatilan bertan

Urriak 30ko
Abesbatzen emanaldirako
Ostirala • 20:00etan

sarrerak eskuratzeko 943-65 56 95 telefono zenbakian

Emakumeentzako paleta ikastaroei ekingo diete datorren astean

Kirola » Emakumea Pilotari egitasmoan, Ibarra, Tolosa eta Iruran izango dira eskolak; izena oraindik eman daiteke.

ERREDAKZIOA

Emakumea Pilotari egitasmoaren baitan duela hiru aste jarri ziren abian Gipuzkoan zeharrekiko Nesken Paleta Eskolak. Datorren asteetik aurrera, berriz, emakumeentzako paleta ikastaroei ekingo die.

Ibarra-ko gain, Tolosa ere jarriko du martxan ikastaroa Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak. Saioak Beotibar pilotalekuan izango dira, asteartetan, goizeko 09:00etatik 10:30era. Izena eman nahi duenik bada 696395211 telefono zenbakira dei dezake azaroaren 6ra arte. Ikasturtea datorren asteartean, azaroaren 3an, hasiko da.

Informazio gehiago nahi izanez gero eskura dituzte interesatuek hiru bide hauek: emakumeapilotari@yahoo.com helbidea, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioa (943471463 telefono zenbakia) eta www.blogak.com/emakumeapilotari bloga.

Paleta eskolen hainbat ezaugarri

Nesken paleta eskolak, esaterako, Ibarra-Tolosan ematen dira bate-tik eta Iruran bestetik. Lehenengoan astelehenetan izaten dira eskola-17:15etik 18:45era Ibarra-ko Be-



Paleta eskola 10-16 urte bitartekoentzat da eta paleta ikastaroa 18 urte gorakoentzat. HITZA

labieta kiroldegian. Bigarrenegian, hau da Iruran, asteazkenetan aritzen dira, 18:45etik 20:00etara, Udal Pilotalekuan.

10-16 urte bitarteko neskenentzat dira eskola hauek; saioak astean behin dira ekainera arte. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatutako teknikari batek gidatzen ditu saioak. Interesatuek 90 euroko kuota ordaindu behar-ko dute.

Emakumeentzako paleta ikastaroen ingurukoak

Paleta eskolak bezalaxe ikastaro hauek ere Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatutako teknikari baten eskutik garrantzen dira.

Ikastaro hauek, aldiz, 18 urtetik



Astean behin egingo dituzte saioak. HITZA

gorako emakumeentzat daude pentsatuak. Paleta eskolakoe bezala, ikastaroan parte hartzen dutenek astean behin izango dute hitzordua; Ibarra-astelehenetan, 18:45etik 20:15era Belabietako kiroldegian eta Tolosa, asteartetan,

09:00etatik 10:30era Beotibar pilotalekuan.

Kuota 105 eurokoa izango da (ikastaroa eta aseguru sartzeko dira hemen). Esan bezala azaroan hasi eta ekainera bitarte luzatuko da.

L Laburrak

Egutegia osatzeko argazkiak biltzen ari dira

LARRAUL » Herriko irudiez osatutako egutegi bat argitaratzeko argazkiak bildu nahi dituzte. Bertan parte hartu nahi dutenek euren argazkiak, ahal dela edozein formatu digitaletan, Aitor Atxegari eman behar dizkiete azaroaren 20ra arte. Artxiboren izenean proposatzen den hilabetearen izena agertu behar da, esate baterako [F:/iraila.jpg](http://iraila.jpg). Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, lau argazki entregatzeko aukera dauka. Ez dago adin mugarik.

1998an jaiotakoak Tolosa CFn sartzeko aukera

TOLOSA » Tolosa CFko futbol eskolan parte hartu nahi duten 1998an jaiotako neska-mutilentzat deialdia ireki du klub urdinak. Horretarako klubaren bulegoan bertan eman dezakete izena edota 943 671749 telefono zenbakian. Lehen entrenamendua azaroaren 3an hasiko da, eta aurrerantean aste-artero izango dira 17:15etik 19:00etara.

Haur antzerki tailerren izena emateko aukera

ADUNA » Umeentzako eta gazteen-entzako antzerki tailerra antolatuko dute Asvinenean. Bertan interpretazioa, ahotsa eta gorputz adierazpena landuko dituzte, Maider Bartolomeren eskutik azarotik ekainera, astelehenetan 17:00etatik 18:30era Asvinenean. Interesatuek Asvinenean bertan (Zubitxiki poligonoa, 647 201401 telefonoa) eman dezakete izena, 40 euroren truke.




harpidedun izateak badu saria

① Gazta


Larte gaztegiaren eskutik, ardi latxaren esne gordinez eginiko gazta koipetsu bat eta gazta zahar krema ontzi bat

Ameri-Ondo Etxea • **BERASTEGI**
tel.: 678 917 378




② 6 disko

Gaztelupeko Hotsak disketearen eskutik, **Bide Ertzean** taldearen **Leidor Sessions** CD-DVD berria



③ Haur literatur liburu sorta

Ibaizabal argitaletxearen eskutik, 4 haur literatur liburu osaturiko sorta



④ JM Beltran eta Kukai Kontzertuan

Emanaldia Urtarrilera atzeratu da



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen
TXOKOA hitza

Aurreikusitakoa baino saio luzeagoa izango da gaur Abesbatza Lehiaketan

Musika » Italiako taldeak ezin izan zuen atzo abestu, eta ondorioz, gaur ariko da Eslovenia, Frantzia eta Norvegiakoekin batera.

INIGO TERRADILLOS

Labur labur ekin zion atzo 41. Abesbatza Lehiaketak. Izan ere, lehendabiziko saioan Txinako Peiyang Chorus, Letoniako Swedish Chamber Choir eta Italiako Coro Musicanova abesbatzak aritu behar ziren, baina azkenhauk, hau da italiarrak atzozko iristerik izan ez zutelako lehenengo bien ahotsak soilik izan ziren entzungai Leidor aretoan. Espero baino emanaldi motzagoa, beraz.

Ordainetan, gaurko emanaldia luzeagoa izango da, italiarren saioa gehitu baitote gaurko aurreikusitako egitarauari. Hala, Esloveniako Chamber Choir Krog, Frantziako Choeur du Chambre du Maine, Norvegiako Norwegian Chamber Singers eta Italiako Coro Musicanova ariko dira Leidor aretoan, 19:30etik aurrera, polifonia eta folklore sailean.

Chamber Choir Krog

- **Jatorria.** Ljubljana (Eslovenia).
- **Zuzendaria.** Ziva Ploj Persuh.
- **Ahots nahasiak.** 16 emakume eta 14 gizon.
- **Historia.** 2005eko udazkenean osatu zen ganbara abesbatza txiki bezala, jende gaztea, baina abeslari trebatuz osatuta. Abesbatzaren bizitza laburra izan arren, dagoneko sari garrantzitsuak lortu dituzte: 2007ko udaberrian abesbatzak Bad Ischl (Austriako) Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan parte hartu zuen, eta partaide guztein artean puntuaziorik altuena lortu zuen, eta lehiaketako Lehen Saria. 2008an, Maribor (Esloveniako) Nazioarteko Abesbatza



Italiako Coro Musicanova taldeko partaideak. HITZA

Lehiaketan parte hartu zuten hiru garren saria lortuz. Abesbatzaren erreperitorioa berpizkundetik XXI. menderaino doa. Barbara Sevsek (klabikordia), Peter Avsi (txeloa), Pietro Majko (kontrabaxua) eta Domen Marin bezalako instrumentu jotzaile ezagunekin abestu dute.

Egitaraua.

- Polifonia: *Nigra Sum* (Tomas Luis de Victoria); *In Monte Oliveti* (Javier Bello Portu); *Abendlied* (Johannes Brahms); *Ajda* (Nana Forte); *Exultate Deo* (Francis Poulenc) omenaldia, Ambroz copi).
- Folklore: *Txantxibirin* (Eduardo Mokoroa); *Loriak Udán* (David Azurza); *Visoki Rej in Druge Pesmi iz Ziljske Doline* (Lojze Lebic); *Igraj Kolce* (Jakob Jez).

Choeur de Chambre du Maine

- **Jatorria.** Le Mans (Frantzia).
- **Zuzendaria.** Yves Parmentier.
- **Ahots nahasiak.** 14 emakume eta 12 gizon.
- **Historia.** 2000ko abenduan sortu zen Solistes de l'Academie ize-narekin. 2007an Choeur de Chambre du Maine izatera pasa zen. Taldearen helburua abeslari zaleak eta kantuko eskoletatik gra-

duatu berriak diren abeslari gazteak etorkizunean profesionalak izateko elkarrekin prestatzea da. Egitarau ugari landu dituzte, barrokotik hasi eta XXI. mendeko musikaraino. Frantzia osoko ekitaldi ezagunetan abestera gonbidatua izan da, Mayenneko Festival des Nuits, l'Epauko Jaialdia, edota Folle Journée Nantesean, esatera, eta kritikari frantsesek eta aldizkariet aitorzen duten bezala, beti arrakasta eta ospe handiarekin.

Egitaraua.

- Polifonia: *O Vos Omnes* (Tomas Luis de Victoria); *Neckereien* (Johannes Brahms); *In Monte Oliveti* (Javier Bello Portu); *Tuo Ling* (Enk Baier).
- Folklore: *Iru Txito* (Aita Donostia); *Autumn Leaves* (Andrew Carter); *Txantxibirin* (Eduardo Mokoroa); *Tea For Two* (Peter Gritton); *Le Furet* (Marc de Ranse).

Norwegian Chamber Singers

- **Jatorria.** Oslo (Norvegia).
- **Zuzendaria.** Jon Fylling.
- **Ahots nahasiak.** 15 emakume eta 15 gizon.
- **Historia.** 1994an eratu zen abesbatza. Abeslari guztiak zaletuak

dira, abesbatza mota desberdinetan beraien ahots gaitasunak gartzeko elkarrekin duten maitasunak gidatzen dituelarik. Euren erreperitorioa zabala eta anitza da: musika garaikidea, folklorikoa, jazza eta noski erreperitorio klasikoa ere bai. *A capella* musikaren soinu eder eta berezia bilatzen dute. Orkestra eta bandekin lankidetzan aritzen dira, eta baita Norvegiako zenbait artistekin batera ere. 2002an Tolosako Abesbatza Lehiaketan folklorean eta polifoniar bigarren sari lortu zituzten.

Egitaraua.

- Polifonia: *O Magnum Mysterium* (Tomas Luis de Victoria); *de Vier Gesange* (Johannes Brahms); *Warum / In Monte Oliveti* (Javier Bello Portu); *Credo* (Egil Hovland).
- Folklore: *Txantxibirin* (Eduardo Mokoroa); *Neskat'ederra* (Xabier Sarasola); *No Vi Eg A Te / Jondalen Og Fri* (Henrik Odegard); *All the Things You Are* (Jerome Kern); *Ward Swingle*; *Pseudo-Joik* (Jaako Manyarvi).

Coro Musicanova

- **Jatorria.** Erroma (Italia).
- **Zuzendaria.** Fabrizio Barchi.
- **Ahots nahasiak.** 20 emakume eta 20 gizon.

ABESBATZA LEHIAKETAKO AZKEN SAIORAKO TXARTELEN ZOZKETA

HITZAk Abesbatza Lehiaketarako sarrerak zozketatzen ditu bere harpidedunen artean. Batetik eguneroko emanaldietarako txartelak eskuratzeko aukera dago, HITZAren egoitzara deituta, 943 65 56 95 zenbakira. Bestetik, Abesbatza Lehiaketako azken emanaldirako txartelak lortzeko webgunean (www.tolosaldekohitza.info) sartuta egin ahal da. *Eztabaidak* atalera jo, eta abesbatzen inguruan iritzia eman besterik ez da egin beharko. Hori bai, e-maila jar-tzea beharrezkoa izango da, txartelen zozketan parte hartu ahal izateko.

■ **Historia.** Hainbat abesbatza taldeetan eskuratutako esperientziaren eta San Filippo Abesbatzaren sendoketaren ondorio gisa sortu zuten, 1999an, Fabrizio Barchik eta abeslari gazte batzuek Musicanova Abesbatza. Ordutik, urtez urte, bai Italian, bai eta atzerrian ere, kontzertu ugari eskaini dituzte. Abesbatza Lehiaketa ugaritan hartu dute parte, eta sari garrantzitsuak lortu dituzte, bai eskualdean, bai eta nazioartean ere: Rieti hiriko Sari Nagusia 1998an eta 2001ean, San Severo 1997an, Gorizia 200n Folklore eta Pop-Jazzeko sailetan Lehen Saria, Ajezzon 2005ean 3. sari bat eta 2 Lehen Sari, besteen artean. Abesbatzak sari ugari eta ospea lortu du bere erreperitorioa berezitasunez eta originaltasunez aukeratzeagatik.

Egitaraua.

- Polifonia: *Veni Sancte Spiritus* (Tomas Luis de Victoria); *Cantate Domino* (Claudio Monteverdi); *In Monte Oliveti* (Javier Bello Portu); *Ave Maris Stella* (Trunk Kverno); *Ov'e Lass il Bel Viso* (Morten Lauridsen).
- Folklore: *Txantxibirin* (Eduardo Mokoroa); *Armetsetan* (Javier Bus-to); *El mio Amore* (Piero Caraba); *Ohili Ohila* (Luigi Colacicchi); *Me Pizzica*, *me Mozzica* (Luigi Colacicchi).

Tolosako herria eta lehiaketa II



» Iritzia

Migel Zeberio
Koru zuzendaria

A tzokoan XX. Mende hasierako Tolosan, musikak izan zuen tokia azaldu nuen baina honek aurrekari garrantzitsuak zekarren.

Maixu izan zuen Felipe Gorriti-eren antzera, Santa Mariko Organu-

jole eta Kaperamaixu, langile lehial, etasuertatzen zenean, gazte denboran behintzat, juergazale eta libertinoa ere izan zen Eduardo Mokoroa Jauna.

Maiz entzuna izango duzue Kaperamaixu izena, baina zer ote da? Behe Erdi Eroan finkatutako instituzio edo musikoen antolakuntza batek hartzen du izen hau. Kaperan, klaustroaren ondoan zegoen elizako areto edo gunean egiten baitzituzten entseguak. Hau musikari kantari, bakarlari, liburu soinu-tresna etabarrek osatzen zuten eta gor-tearen edo elizaren zerbitzura lan egiten zuten.

XIX. mendearen bigarren erdial-

dean berpizkunde nabaria jasan zuen Tolosako Kaperak. Bi Karlismaden artean 1867an lortu zuen Felipe Gorriti bezelako musikari garrantzitsuak Santa Mariko Kaperamaixu plazan.

Ze arrazoiek egin zuten Tolosa musikari batentzat lanpostu interesgarria izateak?

Tolosa bezelako herri liberala indus-triagune oparo eta garrantzitsu bilakatzeko bidetik zijoan. XIX. mendearen bigarren erdialde honetan errota eta burniolak eraldatzen doaz, langile kopurua handituz, egun industria izenez ezagutzen dugunera. Ur-jauzien eta animalien trazio energetik bapo-

rezko makinara eta ondoren mende amaieran elektrindarrera.

Teknologia berriei in dibertsitate ere badator: txapelgintza, burniaren industria berria, poxpolo-gintza, txokolatea eta bereziki pa-pergintza, batzuetan ehungintzan aritu ziren olen ondorengo. 1842. urtean papera jarraian egiten zuten lehen ola, La Esperanza, sortu zuten.

1844-1854 urteetan Tolosa Gipuzkoako hiriburu izan zen.

1864 urtean Paristik Madrilerako trenbidea martxan jarri zuten.

Honek guztiak gizartea ere erabat aldatuko du. Burgesia berria eta langile-dia sortuaz. Datu bezala lehen aisialdirako ohiturak sortu dira: hondartzarako eta mendirako irte-erak edo Beteluko balnearioaren ego-naldiak adibidez.

Aurrekari horien ondoren XX. mendearen erdialdera Sortuko du Javier Bellak Felipe Gorriti Eskola-nia. Garaiko europar musikapunta-koenaren bozeramaile izan zen, erreperitorioaren ausardia eta kalitatearengatik. Garai gogor haietan, tolosarren musikarako aukerak eta zaletasuna, era gorenean findu eta garatu zuten. Orduko errotua zen herrian Musika Kulturaren antola-mendu elitistaren delegaritzak. Hori bidez heldu ziren garaiko musi-kari ospetsuenak *Centro Obrero Ca-tolico*-ko aretoreta.

Beraz, 1960 ko hamarkadan To-losako Abesbatza Lehiaketa sortu izana eta, urteen poderioz mundu mailan egin duen lekuak ez gaitu harrituko, babaizten senik. Hori mantentzeak aldi ekarriko dio To-losari lan anitz, baita lortuko ere.

E **Elkarrizketa**

IOSU IZTUETA › Bidaia



KLISK

«Yukongo historia kontatu nahi da bidaia honekin»

Tolosa » Gaur 20:00etan Kultur Etxean izango da Iosu Iztuetak egin duen azken bidaia bideo proiektzioa. *Urre Sukarraren istorioa*, Yukon ibaiaren jaitziera oinarritzen da.

ENERITZ MAIZ

Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, gaur, Tolosako Kultur Etxean, bideo proiektzioa egongo da. Bertan, *Urre Sukarraren istorioa* kontatuko da eta Iosu Iztueta tolosarra izango da bideo proiektzioaren gidari. Beste bost lagunekin batera izan zen hiru astez Yukon ibaia kanoaz jaisten.

Zein izan da aurtengo bidaia?

Yukon ibaia kanoaz jaitea, hau da, trekking bat egitea, nolabait, 100 edo 110 urte atzera egiteko aitzakia baino ez da izan. Yukon, 1898. urtean, munduak ezagutu duen exodo handienaren lekuko izan zen. Urrea topatu zutenean, bertan 100.000 lagun inguru izan zirela kalkulatu zen. Bertara, urrea bilatu eta bizitza konpontzeko asmoan joan ziren. Denetarik joan zen bertara: behartsuak, alperrak... horrelakoetan handinahikiak neuririk ez duelako izaten da.

Noiz izan zineten bertan?

Gu, aurtun, abuztuaren amaieran eta irailaren hasieran izan gara eta bertan hiru aste pasa ditugu. Guk bidaia bizituta, gara, garai hartan gauzak nolakoak izan ziren kontatzeko aitzakia izan da. Guk kanoaz ibaian behera 600-800 kilometro egin genituen eta mendian 4-5 egun pasa genituen.

Zer ikusiko du gaur bideo proiektzioa gertatzen denak?

Gauza asko dago kontatzeko baina ordubete inguruko saioa izango da eta ondoren, galderak egiteko aukera ere izango da. Irudiak izango dira eta nik neronek zuzenean kontatuko dut historia. XIX. mendean amaieran gertatu zena kontatzen saiatuko naiz argazki zaharren bidez eta zergatiak ere azalduko ditut. Orduko argazki zaharrak lortzeko aukera izan dut. Guk aurtun 1.000 kilometro aurrera egin ditugu baina benetan, 110 urte atzera egin ditugu. Hau da, espazioan aurrera egiteak, denboran atzera egiteko balio izan digu. Material pila bat eta milaka argazki ekarri ditugu baina gauza asko moztu beharko ditut.

Nortzuk izan dituzu oraingoan bidai lagun?

Sei lagun ginen, lau euskaldun eta bi galiziar izan gara. Galiziarrek, Pablo Sierra eta Alvaro Fontana biologoak izan ziren eta euskaldunetan Maider Jauregi zarauztarra, Miriam Lopez tolosarra, Markos Sistiaga Pasai Donibaneakoa eta ni neu.

Nolakoa izan zen bidaia?

Bizati bezala ditu bidaia. Hara iritsi zen jende gehienak itsasotik hartzen zuen bidea eta beraiek egin zuten bide berbera egiten saiatu gara. Noski, medioak, arropa, motibazioa... denak desberdinak dira. Lehen lau egunetan 1.000 metroko Chilkoot Pass izeneko mendatea pasa behar da eta hori gune klabea zen Kanada barnekalderara iristeko. Hortik 3-4 egunetan ibili ginen eta gero Yukon ibaia hartu genuen. Yukon ibaia itsasotik gertu jaitzen den ibaia da baina 3.000 kilometro harantzago itsasoraten da. White Horse herrian, Yukonen, bi kanoatan, bi astetara-

ko behar genuen guztia hartuta, abiatu ginen ibaian behera, Dawson City-ra iritsi bitarte. Herri honetan urrea aurkitu zuten 1897. urtean. Hango berriak Kaliforniara iritsi zirenean, horrek eromena sortu zuen, hau da, urrearen sukarra izan zen. Sukar hori burua galterainokoa izan daiteke gainera.

Mila kilometro aurrera eta 110 urte atzera, hau da, espazioan aurrera eta denboran atzera egin da

Urrea aurkitu zuten eta horrek eromena sortu zuen; urrearen sukarra izan zen

Bidaia honen atzean Yukonen gertatu zen giza historia kontatzeko aitzakia baino ez dago

Egun batzuk bertan pasa genituen eta bueltatu ginen hona. Garai hartako inor ez da bizi eta lekuko zuzenik ez dago, baina ondorengoek istorioak eta haiek ibilitako leku eta txabolak eta errekek bai.

Nolatan erabaki zenuten Yukon ibaiaren jaitziera egitea?

Duela 17 urte ere bertan egon nintzen elurretan egindako espedizio batetan eta geroztik beti bueltatzeko asmoa nuen baina inoiz ez zen garai egokia iristen. Azkenean, ez da azpiegitura handia behar duen bidaia eta aurtun di-da batean egin genuen. Bertara hegazkinez iritsi daiteke. Giza istorio bat kontatzeko gogoia zegoen bidaia honen atzean.



Fleming ikastetxean izan da Xaxi

VILLABONA » Xaxi, euskal maskota, bisita izan zen Fleming ikastetxean. Haur Hezkuntzako laguntxoekin egoteko, Arroako eraikuntzara joan zen. Oporretan Zuberoan izan zen Xaxi; «Harrera bikaina jaso zuen gure ikasleengandik. Bisita hau dela eta, euskal astea ospatzen ari gara ekintza desberdinak burutuz bere inguruan, hala nola: Irratsaio bereziak, ipuin kontaketa, ikasleek aurkeztutako euskal jolasak, olerki trukaketa... Amaiera eder bat emateko, Xaxi maskota bizi den ingurura, Amasara, hurbilduko gara txango bat eginez», adierazi dute ikastetxetik. HITZA

Laburrak

Azaroaren 3an 'Mihiluze' saioa grabatzera doaz

ANOETA » Alkartasuna elkartetik, 25 lagun animatu dira, Kike Amornarriz eta Ilaski Serranok egiten duten *Mihiluze* programara joateara. Grabaketak egiteko, Miramongo estudioetara joan behar dute eta publiko bezala egongo dira. Horretarako autobusa 09:45ean hartu beharko dute autobus geltokian. Izena eman dutenei garai agertzea eskatzen diete. Bi saio grabatuko dituzte eta Anoetan 14:00etarako izango dira.

17. urteurrena ospatuko du Alkartasuna Elkarteak

ANOETA » Azaroaren 29an, igandea, Alkartasuna Elkarteak 17. urteurrena ospatuko du. 12:30ean Meza Nagusia izango dute bi hizkuntzetan eta ondoren bazkaria Zuloaga Txikin. Eguna bukatzeko, bazkalostean dantzaldia izango dute. Bazkideek, 20 euro eta bazkide ez direnek, 25 euroan erosi beharko dute txartela. Azaroaren 2tik aurrera, 18:00etatik 20:00etara txartelak erosteko aukera egongo da eta azken eguna azaroaren 27a izango da.

'Vicky Bikingoa' eta 'Los Sustitutos' filmak Gurean

VILLABONA » Asteburuan *Vicky Bikingoa* eta *Los Sustitutos* filmak eskainiko dituzte Gurea zineman. Larunbatean, *Vicky Bikingoa*, 17:00etan hasiko da eta euskaraz izango da. Jarraian, 19:30ean edota 22:30ean, *Los Sustitutos* eskainiko dute. Igandean, *Vicky Bikingoa* 17:00etan eta *Los Sustitutos* 19:30ean egongo da. Astelehena, ikuslearen eguna izango da eta 21:30ean, *Los Sustitutos* izango da.

Sei urte eta Lor taldeen kontzertua Anoetako Gaztetxean

E.MAIZ

Larunbatean, urriak 31, Txolarre Irratiak eta Anoetako Gazte Asanbladak kontzertua antolatu dute Anoetako Gaztetxean. Aste Internazionalistaren barruan izango da eta «herrien arteko elkartzasuna bultzatzeaz batera, Anoetako Edurka pabiloian biltzen diren eragileen arteko elkarlanaren isla» izan nahi du. Lor eta Sei urte taldeak gonbidatu dituzte horretarako eta 23:00etatik aurrera izango da emanaldia Anoetako Gaztetxean.

Gazte eta helduetan 8 lagunentzako lekua dago Arte plastikoan

E.MAIZ

Villabonako Udalak antolatzen dituen kultur ikastaroen artean, Arte Plastikoko ikastaroa dago eta gazte eta helduentzat oraindik 8 lagunentzako lekua libre dago. Izen emateko azken eguna urriak 30a da eta ikastaroa azaroan 4an hasiko litzateke. Asteazketan izango da eta aukeran hiru ordutegi daude: goizetan, 10:00etatik, 12:00etara eta arratsaldetan bi saio izango lirateke; lehen, 16:00etatik 18:00etara eta bigarrena 18:00etatik 20:00etara.



22°
14°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATS.OSTARTEAK
BEROENA 23°
HOTZENA 13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaileko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ameketa, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hemialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irurra, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kultur asteak

■ **Asteasu.** Kultur Jardunaldiak:
19:00etan, Ekuadorri buruzko
ikus-entzunezkoa *Tu cárcel... Na-*
rrativas de viaje y ausencia. Ondor-

Deialdiak

■ **Larraul.** Herriko irudiez osatuta-
ko egutegi bat argitaratzeko ar-
gazkiak bildu nahi dituzte. Argaz-
kiak, ahal dela edozein formatu di-
gitalean, Aitor Atxegari eman
behar zaizkio. Artxiboren izenean
proposatzen den hilabetearen ize-
na agertu behar da, esate baterako
F:/iraila.jpg. Parte hartzaile bakoit-
zak, gehienez, lau argazki entre-
gatzeko aukera dauka eta ez da ja-
ri ez adin mugarik ezta saririk ere.
■ **Tolosa.** Josu Iztuetaren bideo
proiektzioa Alaskako Yukon ibaian
barrena egindako bidaiaz Kultur
Etxean 20:00etan.
■ **Tolosa.** Engomadora Moderna
enpresako langile ohiek bazkaria
egingo dute azaroaren 7an Fron-
ton jatetxean. Izen-ematea, 943
674669 (Izakun) eta 943
671943 (Justi) telefono zenbakie-
tan.
■ **Tolosa.** Tolosa CFko futbol esko-
lan parte hartu nahi duten 1998an
jaiotako neska-mutirik klubaren
bulegoan (943 671749) eman be-
har dute izena. Azaroaren 3an ha-
siko da, astearteetan 17:15etik
19:00etara.

Musika

■ **Tolosa.** Esloveniako Krog, Nor-
vegiako eta Frantziako Maine
abesbatzen saioa folklore eta poli-
fonia sailetan Leidor aretoan
19:30ean, Abesbatza Lehiaketa-
ren baitan.

Irteerak

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkar-
teak Santo Domingo de la Calzada-
ra (Errioxa) irteera antolatu du
azaroaren 5erako 14 eurotan.
Izen-ematea, elkartean.
■ **Tolosa.** Amarozko Beti gazteak
adinekoen elkarrekin txangoa an-
tolatu du Lodosara hilaren 31n jo-
ango dira, kontserba etxea eta eli-
za bisitatuz. Izen-ematea, 653 74
71 92 telefono zenbakira deituta.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa
etorbidea, 2. 943 654610.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia,
5. 112.
■ **Iruztun.** Mutiloa, A.M. San
Martin, 5. 112.

TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Zahar berri. **09:00.** Muka-
Muka. **09:30.** Tolosaldean Gaur.
10:00. Gipuzkoa kultura. **10:30.** On eint!
11:00. Lamien artean eta Tolosaldean
Gaur. **11:30.** Klipak. **12:00.** Wazemank.
12:30. Klipak. **13:15.** Tolosaldean Gaur.
14:00. On eint! **14:30.** Lamien artean.
15:00. Tolosaldean Gaur. Ondoren, kli-
pak. **16:30.** Wazemank. **17:15.** Klipak.
17:30. Tolosaldean Gaur. **18:00.** Kafe
t'ardi. **18:30.** EH lau haizetara. **19:00.**
Itsasorri begira. **19:30.** Tolosaldean
Gaur. **20:00.** Ikusten.
*(16:30etik 20:30era bitarteko blokea
errepikatuko da, 08:30etara arte).

IRRATIA

Txolarre irratia

10:45-11:00. Argia astekaria.
11:00-13:30. Tolosaldeko Ahotsa:
Albistegia, Magazina, Lehiaketa eta
disco eskainiak.
13:30-14:00. Albistegia - Info 7.
14:00-15:00. Tolosaldeko Albiste-
gia.
17:00-17:45. Musika nobedadeak.
18:00-20:00. Tolosaldeko Ahotsa
(errepikapena).
20:00-20:30. Albistegia, Info 7.
20:30-21:00. Mintzatzen saioa.

HITZAK ez du bere gain hartzen
egunkariaren adierazitako esanen
eta iritzien erantzunik.

A Agurrak

*Ernietatik begiratuta izar bat zeruan, irrintzi luze-luzeak mendi gainean
lainoak, trumoiak eta tximistak kalean, baina iritsiko da eguzkia udaberrian.*

*Besarkada bat
eta muxuak
etxekoan partetik!*

Maite zaitugu!

Urte askoan
Iñigo!

Besarkada iraultzaile bat
Billabonatik!

Maite
zaituztegu!

mantangori rekin

Zinema etxean 4

6 DVD euskaraz

Larunbat honetan

Gipuzkoan eta Nafarroan

Heidi 3

HARPIDEDUNENTZAT, BILDUMA OSOA 26 € ESANIA. EDITORIO 943 39 43 45, harpidetza@berria.info edo www.berria.info

aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 2. alea

200 ERREZETA EUSKARAZKO SUKALDARITZA BILDUMA

berriaren

harpidedun eta irakurleek

erdi prezioan **12€**

Bete ezazu urriaren 18tik 31 bitartean BERRIAN argitaratuko den erreseba kupoia eta utzi zure kioskoan azaroaren 8a baino lehen.

BI ASTEREN BURUAN KIOSKO BEREAN JASOKO DUZU LIBURUA.

Laguntzaileak **FAGOR**

aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**